


DESAZKUNDE EKONOMIKOA: Proposamen iraultzaile bezain beharrezko bat

Ulertu, beldurra galdu eta
praktikan jartzeko gida bat



**mugarik
gabe**



Argitaratzailea:



www.mugarikgabe.org



@mugarikgabeongd



@mugarikgabe



Mugarik Gabe

ARABA

"Itziar" Elkartearen Etxea - Zalburu Plaza z/g, 01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA

Vicente Garamendi auzunea 5, behea, 48006 Bilbao
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA

Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea, 20009 Donostia
943 445 977– gipuzkoa@mugarikgabe.org

Finantzaketa:



2026ko otsaila

Maketazioa: [Binari Comunicación](#)

Argitalpen honen ilustrazioak Mugarik Gaberen BERRIRO JAIO eta TIPI TAPA komikietatik eta AZTERTU, ALDARRIKATU ETA ARITU liburutik atera dira. Gure webguneko argitalpenen atalean eskuratu ahal dituzu.



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0) Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Edukia libreki zabaltzea, kopia eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legeko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_

Probatu zer dakizun Desazkundeaz

Joko txiki batekin hasiko gara, Desazkundeaz zerbait ba ote dakizun jakiteko. Saia zaitez galdera hauei buruz pixka bat pentsatzen, eta eman erantzuna.

* Argitalpen honen amaieran aurkituko dituzu erantzun zuzenak.

1. Auto elektrikoa irtenbide jasangarria da kutsaduraren arazoa konpontzeko

A. Egia

B. Gezurra

2. Zenbat aldiz biderkatu beharko litzateke gaur egun munduan dagoen litioaren ekoizpena (baterietarako batez ere erabilia) bat-bateko trantsizio bat egiteko energia berriztagarrietara?

A. x2

B. x20

C. x120

3. Zenbat enpresak egiten dute CO2 isurien % 40 (karbono dioxidoa, berotze globalaren eragilea) Espainian?

A. 2

B. 50

C. 832

4. Pertsona ospetsu hauetatik, nork babestu du azken aldian desazkundearen teoria?

A. Aita Santua

B. Leticia erregina

C. Miguel Bosé

D. Ibai Llanos

5. Hainbat azterlanen arabera, gaur egungo energiaren eta materialen kontsumoaren zer portzentajerekin izan genezake antzeko bizi-maila (baina bizimodu desberdina)?

A. 10%

B. 85%

C. 35%

Mundu mugatu batean hazkunde esponentzialak betirako iraun dezakeela uste duena, eroa ez bada, ekonomista da.

Kenneth Boulding
(ekonomista, 1910-1993)

BERAZ, ZER ZARA
ERDA EDO EKONOMISTA?



Ez dago naturan oinarritzen ez den giza bizitzarik, ez ekonomiarik, ez teknologiarik, ez ezer. Eta oinarri dugun naturak ezaugarri nagusi bat du: muga fisikoak ditu.

- **Berriztaezina** esaten dugun hori kopuru jakin batean dago, eta, beraz, bakarrik erabil daiteke agortu arte —adibidez, petrolioa eta koltana—.
- **Berriztagarria** esaten dugun hori —adibidez, uraren zikloa— berritu egiten da, baina erabiltzeko abiadura birsorkuntza naturalaren tasa baino askoz handiagoa bada, muga fisikoak topatuko ditugu.
- **Hondakinak** dira beste muga fisiko bat. Prozesu biokimiko batzuek sortzen diren hondakinak degradatzen dituzte. Alabaina, hondakinak sortzeko abiadura prozesu horiena baino handiagoa bada, hondakinak ezin izango dira xurgatu; airean, uretan eta atmosferan geratuko dira degradatu gabe, eta, beraz, kutsadura sortuko da. Eragin larriak ditugure osasunean eta beste izaki bizidun batzuegan.

Giza bitza muga fisiko horien mende dago...

Hala ere, gaur egun nagusi den sistema ekonomikoak —hau da, kapitalismoak— muga horiek ez baleude bezala funtzionatzen du. Etengabeko hazkundera behar du, eta, ondorioz, gero eta baliabide gehiago kontsumitu behar ditu bere buruari eusteko. Baina, esan bezala, baliabide horiek, ez dira amaigabeak...

Egungo pentsamendu eta eredu ekonomikoaren eraitsi beharreko 5 mito

1. PLANETA SALBATU BEHAR DUGU

Zer iruditzen zaizue **eslogan** hori? Oso ezaguna da, eta asmoa, zalantzarik gabe, oso ona da. Baina **ikuspegi oso mugatua du, planeta ez baitago arriskuan**. Gizakiok, espezie biziduna garen aldetik, ingurumen- eta klima-baldintza jakin batzuk behar ditugu bizi ahal izateko (airea, ura, tenperatura...). Baldintza horiek betetzen ez badira, gerta liteke espezie gisa ere desagertzea. Hala ere, **planetak aurrera jarraituko du**, ez zaio ezer gertatuko.

Eztabaida behar bezala egiteko, kontuan hartu behar dugu **ez dela planeta salbatu behar, baizik eta geure burua salbatu behar dugula**, arriskuan gaude eta.



Beste mundu-ikuskera batzuek —hala nola indigenak— planetako mugen barruan kokatzen dute gizakia, ekosistemetak beste elementu bat bezala. Ez dute uste mundua kontrolatu edo menderatu behar denik.

2. EKONOMIA = MERKATUAK

EKONOMIA hitza **OIKONOMIATIK** dator, eta hitz greko horrek etxea kudeatzea esan nahi du. Gaur egun, ordea, hainbeste zaildu dugu, non urrun geratu den etxe edo familia bat kudeatzearen esanahia.

Egia esan, sinetsarazi digute –batez ere Neoliberalismoak sinetsarazi digu– **ekonomia merkatuetara mugatzen dela** eta, beraz, diru-fluxuetan jarri behar dela arreta.

Lehentasunezkoztat jotzen da hain arrotzak eta urrunak egiten zaizkigun “merkatu” horiei konfiantza ematea eta ekonomia haztea; eta, horretarako, testuinguru politiko segurua eduki eta lehiakorra izan behar da.

Ildo horretan, merkataritza librearen bide neoliberaletik doan gobernua jotzen da **segurutzat**; eta kostu produktibo txikiagoa lehenesten duena da **lehiakorra**, nahiz eta, sarritan, edozeren kontura egin.

Merkatuak **sasi-erlijio** baten modukoak dira eta **aditu** jakin batzuek baizik ezin dute ulertu zer gertatzen den eta zein den erantzun egokia.



Era berean, ez da kasualitatea **osasunari eta hezkuntzari “gastu”** esatea, eta diru publikoa **enpresa eta azpiegitura handietara** (abiadura handiko trenak, inork erabiltzen ez dituen aireportuak eta autobideak, etab.) bideratzen denean, berriz, **“inbertsioa”** esatea horri.

Ekonomia jendearen zerbitzura egon beharrean, gaur egun, hauxe dugu: jendea ekonomiaren zerbitzura dago. Helburua ia beti izaten da metaketa, ez banaketa.

3. ONGIZATEA ETA AURKERAPENA = HAZKUNDE EKONOMIKOA

Ibai bat garbi edo baso bat osorik edukita, ekonomia ez da hazten. Kutsatzen eta, gero, kutsadura kentzen badugu, berriz, bai. Baina zer da desiragarriena, gizartearentzat eta ingurumen-aldetik? Zer da errentagarriena?

Barne Produktu Gordina (**BPG**) erabiltzen da **oparotasunaren** adierazle moduan. Mito sozialik handienetako bat hau izan da: **BPGa hazi egin behar da**, eta ona da haztea **aberastasuna pertsona guztiengana iristeko. Hori gezurra da.** Ondo frogatuta dago BPGa handitu duten herrialde askotan areagotu direla desberdintasunak, gatazkak eta ingurumenaren degradazioa.

Argi dago **jarduera produktibo** batzuk (**kutsatzen dutenak, giza eskubideak urratzen dituztenak...**) ez direla **bateragarriak bizitzarekin**, herrialdeko kontu nazionalak handitu arren.

Era berean, garapena prozesu lineal eta unibertsal gisa ulertzen da oraindik ere. Garapena merkataritzaz hedapenarekin parekatzen da, eta ongizatea kontsumitzeko ahalmenarekin identifikatzen da. Aspaldiko ideia bizirik dago oraindik: garapen-bidean dauden herrialdeek herrialde "garatuak" errezeta errepikatu behar dute aurrerapena lortzeko.

Idea horien aurrean, oso bitxia da **"Planeta Zoriontsuaren Indizeak" (PZI)** adierazten diguna. Bizi-itxaropena neurtzen du zoriontasunaren pertzepzioarekin eta aztarna ekologiko edo karbono-aztarnarekin (2021eko azken datuak).

- **Herrialde zoriontsu eta "jasangarrienak" (2021):** Vanuatu, Suedia, El Salvador, Costa Rica, Nikaragua, Danimarka, Espainia
- 2021ean **Per Capita Errentarik (PCE) altuena** duten herrialdeetako batzuk (paradisu fiskalak kenduta):

HERRIALDEA	PCE POSTUA	baina...	PZI POSTUA
Irlanda →	4	>	28
Suitza →	5	>	49
Norvegia →	6	>	16
Singapur →	7	>	108
AEB →	9	>	103



Zer gogoeta egiten dugu horien aurrean? Labur esanda... Diru gehien duten herrialdeek ez dira zoriontsuenak, ezta ingurumena gehien babesten dutenak ere. Beraz... "aurrerabide" eta "garapenaren" ideiez hausnartu behako dugu berri...

Gainera, "aberats" deitutako herrialdeek aspaldi **gainditu zituzten beren lurraldeen mugak**, eta, horregatik, hirugarren herrialdeetara jotzen dute —jotzen dugu— hazkunde-egarria "asetzeko"; hango eskulanera, hango baliabide naturaletara (koltana, petrolioa, litioa...), etab. Horren truke, balio ez diguna itzultzen diegu. Esaterako, gure zabor teknologiko guztia Afrikan amaitzen da, eta erabat degradatutako eremuak sortzen dira...

Maltzur samarra, ezta?

Yayo Herrerook oso ondo azaldu du hori:


<https://youtu.be/b3olxmxsvB4?si=Dht8n7ZODkAqF7c2&t=34>



Agian datu hauek apur bat harrigarriak suertatuko zaizkizu, horrelakoa da **Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) testuinguru ekonomiko-energetikoa:**

- **Gure energia-kontsumoaren % 45,8 petroliotik eratorria da;** % 24,5 inportatutako energia elektrikoa da; % 20,6 gas naturala eta % 8,2 energia berriztagarriak.
- **Kontsumoaren ia % 80 industriari eta garraioari dagokio.** HORI ERALDATU BEHAR DA (askotan, erantzukizuna bakarrik **etxeetan** jarri ohi den arren).
- Gure **mendekotasun energetikoa % 90 ingurukoa da.** Hortaz, Euskadiko ekonomiak hemen sor litekeena baino 9 aldiz energia gehiago kontsumitzen du. Horren inpaktu ekologikoa (eta soziala) izugarria da.
- Gure ekoizpen-sarean behar ditugun materialen % 75 inportatu egiten dugu, eta ekoizten dugunaren % 71 esportatzeko da.
- **Garraioak** aukera ematen digu hori guztia inportatu eta esportatzeko. Baina bera da EAEko ekonomian energia gehien kontsumitzen duena, eta % 95ean erregai fosilen mende dago. Eta erregai fosil horietako gehienak kanpotik datoz gure lurraldera.
- **ONDORIOA: EAEko ekonomiak material ez-berriztagarri asko** (batez ere gure lurraldetik kanpoko erregai fosil eta mineralak) **xurgatzen ditu,** eta, gero, material horiek manufakturatatu, eta berriz esportatzen ditu kanpora.

Merkatu-ekonomiak "ekonomiatik" kanpo uzten ditu naturarekin ditugun harreman guztiak, eta, era berean, bazter uzten du emakumeek etxeetan egindako lan guztia.



4. LANA = ENPLEGUA

Diruzko transakzioa dakarten jarduera guztiak dira produktiboak.

Adibidez, zure familiarentzat kozinatzea ez da produktibotzat jotzen; baina jatetxe batean kozinatzea, bai. Jakina, bi jarduerak behar-beharrezkoak dira.

Beraz, alde batera uzten dira merkataritza-esparrutik kanpo dauden lan eta jarduera guztiak.

Aurreko adibidearekin jarraituz, etxean janaria prestatzea eta **familia zaintzea eta elikatzea emakumeei esleitutako lan bat izan da, eta tradizioz emakumeek egin dute.** Gaur egun ere horrelaxe da, eta "doan" egiten dute, ez baitute ezer kobratzen, eta ez baita kontu publikoetan sartzen. Hala ere, aintzat hartzen eta baloratzen diren lanak haren gainean oinarritzen dira. Goi-exekutibo, youtuber edo suhiltzaile batek ezingo luke egunero beren lanean jardun, etxean bera zaindu eta elikatuko ez duen inor ez badago.

Izan ere, **pentsemendu ekonomikoak lana eta enplegua parekatu ditu, eta alde batera utzi du ordaindu gabeko zaintza-lana.**

Hala, **2023ko datuen** arabera, Euskadiko emakumeek egunean 2,6 ordu ematen zituzten etxeko eta zaintzako lanetan, eta gizonek, berriz, 1,7 ordu. Egunean ia ordubete gehiago da, astean ia 7 ordu, eta hori asko da.

Beraz, berdintasunaren ameskerian bizi gara. Paperaren gainean, denok gara berdinak, baina, praktikan, estatistikek erakusten dutenez, oraindik ere ez da horrela. **Lanaren banaketa sexuala** da emakumeak mendekotasunean edukitzeko oinarritzko mekanismoetako bat. Hobetzeko tarte batzuk egon daitezke pertsona jakin batzuentzat, baina baldintza okerragoetan bizi diren beste batzuen kontura izaten da.

Esate baterako, **etxeko langileen kolektiboa**, gaur egun, pobretutako herrialdeetatik datozen emakumeek osatzen dute batez ere, guk egin nahi ez ditugun lanak egitera etortzen batira. Emakume horiek gure adinekoak eta mendekotasuna duten beste pertsona batzuk zaintzen dituzte. Horretarako, beren jatorrizko herrialdeetan, are pobretuago dauden beste emakume batzuk utzi behar izan dituzte, mendekotasuna duten pertsonen kargura.

Hauek dira ZAITZEN KATE GLOBALAK

Alderantzizko internazionalizazioa da. Ezin ditugunez gure adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak Latinoamerikara eramán han zain

Paradoxa bidegabea da: bizitzari eusteko lanik beharrezkoenetako asko dira, hain zuzen, gizartean eta ekonomian gutxien baloratzen direnak.

ditzaten, hango emakumeek emigratu egiten dute hemen zaintzeko. Eta **sistemak behar du emakume horiek zaintza-lanak oso merke egitea**; are gehiago, horretaz aprobetxatzen da.

Gogoan dut Maddirelin izandako solosaldia, lanean topo egin genuen egun bateloa...



5. EZ DAGO BESTE AUKERARIK

Esaldi biribilak entzuten ditugu egunero: “ez dago hautabiderik”, “ez da posible beste eredu bat izatea”. Zoritxarrez, mezu horiek hor daude eta hor egongo dira. Aldaketa handiak eta paradigma berriak saltzen dizkigute, baina, funtsean, ez dakarte egiturazko aldaketarik, kapitalismoaren modu berdeagoak edo “atseginagoak” baizik.



Aukeran dugu bide horretatik aurrera egitea, baina basakeriara eramango gaitu: kutsadura, baliabideen eskasia, gatazkak, inperialismoaren modu berriak, autoritarismo handiagoa eta eredu ekofaxistak ere bai.

Beste aukera hauxe da: **trantsizioa egitea bizitza erdigunean jartzen duten beste eredu demokratiko batzuetara**, justizia, ekitatea eta jasangarritasuna aintzat hartuta.

Batzuek uste dute gehiegikeria bat dela **ekofaxismoaz** hitz egitea, baina gogoan izan behar dugu dagoeneko abian daudela baliabideak lortzeko gatazkak eta herritarrak beren lurraldeetatik kanporatzen dituztela. Astero jasotzen ditugu Latinoamerikako honelako albisteak: **naturaren defendatzaileak jazarri eta mehatxatzen dituzte**, indarkeriazko gatazkak, hilketak, komunitate osoak lekuz aldatzera behartuak, gehienbat mendebaldeko herrialdeetako enpresa transnasionalek lurralde horietan dauden baliabide naturalak atera nahi dituztelako.

Desazkundera

Zer proposatzen du eta zertarako

Desazkundera proiektu politiko bat da, eta elkarbizitzako sozietate autonomoak eta aurreztaileak eraiki nahi ditu Iparraldean eta Hegoaldean, produkzio-sistema (zer, zenbat, zertarako, non eta nola ekoizti), banaketa, kontsumoa eta hondakinen kudeaketa berriz pentsatuta.

Erraza ematen du!



Borondatezko desazkundera ordenatua, ekitatiboa eta planifikatua proposatzen da, desazkundera behartu, bat-bateko eta kaotiko bat ekarriko duen kolapso-egoera saihesteko.

Ibai batetik ur-jauzi batera hurbiltzen ari den itsasontzi batekin parekatu dezakegu... Irtenbidea ez da abiadura moteltzea, baizik eta buelta eman eta norabidea aldatzea.

Helburua da oreka-harreman berri bat ezartzea gizakiaren eta naturaren artean, baita gizakien artean ere. Liberalismoaren hazkundera ekonomikoaren helburua baztertzea, eta kontsumoa eta ekoizpena murriztea.

Hauxe da erronka: gutxiagorekin hobeto bizitzea.

BAI, OSO ESALDI ERABILIA DA, BAINA BEHARREZKOA DA!

Eta bestelako **bititza baten alde** egitea, **estres gutxiagorekin**, presa gutxiagorekin, lehiakortasun gutxiagorekin eta denbora gehiagorekin geure buruarentzat edo besteentzat.

Desazkunderaren oinarritzko printzipioak "3R" izenekoak dira. Euskaraz 7 "B" eta "M" bat lirarteke baina tira.

Alde batetik, gaztelaniazko 3R ospetsuak daude, jasangarritasun- eta ekologismo-gaietako aldarrikapen tradizionalak:

- **Murriztu:** kontsumismoa utzi, eta bizimodu soil batera jo, horrek dakartzan ondorio guztiekin.
- **Berrerabili:** ondasun iraunkorrak eduki, konpondu eta kontserbatu, bigarren eskukoak, etab.
- **Birziklatu:** produktuen bizi-denbora luzatu edo beste erabilera bat eman, kontsumoa saihestu ez xahutzeko.

Serge Lautouchek (desazkundearen ideologoak) 5R gehitzen dizkie horiei, desazkundearen proposamenak azaltzeko:

- **Birpentsatu edo berrebaluatu:** balio globalak, indibidualistak, kontsumistak eta lehiakorrek ordezkatu tokian tokiko eta lankidetzako balio humanistekin.
- **Berriz jarri testuinguruan:** gauzak beste ikuspuntu batetik begiratu; testuinguruan jarri gure bizimodua, “bizi-kalitatea”, “nahikoa” eta “beharrezkoa” dena.
- **Berregituratu:** ekonomia- eta ekoizpen-egiturak (industria, garraioa, nekazaritza, aisialdia...) balio berrietara egokitu, ekoeraginkortasuna eta borondatezko soiltasuna uztartuz.
- **Birlokalizatu:** tokiko autosufizientziarantz jo, garraioko kontsumoa murriztuz lehentasunezko beharrak asetzeko. Hau da, kontsumitzen duguna ahalik eta gertuen ekoitzi.
- **Birbanatu:** funtsean, aberastasuna banatu, eta ondo bermatu pertsona guztiek eskura izatea bizitzeko beharrezkoak diren baliabide naturalak eta ondasun komunak.



Baina... **mundu guztiak** jo behar al du desazkundera?

EZ! Hegoaldeko herrialdeetan **pobrezia eta eskubide-falta** dira nagusi, eta, beraz, **maiz, hazkunde ekonomikoa** behar da. Horregatik, desazkundera ez da modu berean gauzatu behar Iparraldean eta Hegoaldean. Baldintzak desberdinak dira eta eboluzioak desberdina izan beharko luke.



Bideo honek ederki azaltzen du zer den desazkundera, minutu batean:

<https://www.youtube.com/watch?v=NZWTK-Uo-CI>



Espezie biziduna garenez, naturan lortzen dugu bizitzeko behar duguna (airea, ura, lehengaiak, etab.), eta, beraz, erabat **ekomendekoak** gara. Era

berean, beste pertsona batzuek bizirauteko ematen dizkiguten zainketen mende gaude; adibidez, adingabeak edo adinekoak garenean eta gaixotzen garenean. Beraz, **elkarren mendeko** izakiak gara, gure bizitzako fase batzuetan beste pertsona batzuek zaindu behar gaituztelako.

Bada, **gaur egungo sistema ekonomikoa** (egungo ekoizpena, erreprodukzioa, banaketa eta kontsumoa) giza bizitzaren **oinarrizko bi mendekotasun horiei bizkarra emanez garatu da**. Hau da, eredu kapitalistak ez du kontuan hartzen Naturaren mende gaudela (bestela, ez luke hainbeste degradatuko eta kontuan hartuko lituzke bere mugak) eta zaintzak behar ditugula. Horiek gutxiesten ditu, ez ditu kontabilizatzen eta arlo pribatura baztertzen ditu, politika publikoetan lehenasunezko zat jo beharrean.

Desazkondeak, **Ekonomia Feministaren** ekarpenekin, hauxe proposatzen du: **EKODEPENDENTZIA** eta **INTERDEPENDENTZIA** izatea politika guztiak egituratzeko ardatzak.


Ekonomia logika horren pean birmoldatzeko, oinarrizko galdera hauei erantzun beharko zaie:

- **Zer behar ase** behar dira pertsona guztientzat?
- **Zer ekoitzi behar da** behar horiek ase ahal izateko?
- **Zer lan behar dira gizartean** ekoitzi nahi dugun hori lortzeko?

Inguruan izaten ditugun enpleguak kontuan hartuta, oro har eta salbuespenak salbuespen, seguru asko ondorio hau aterako dugu: **aitorpen sozial gehien duten** eta hobeto

ordaintzen diren **lanak** gehienbat gizonek egiten dituzte, askotan horiek dira **kutsatzaileenak** eta ez diote ekarpen handirik egiten bizitzaren jasangarritasunari. Adibidez, ingeniarietan edo automobilgintzaren sektoreko salmentan lan egitea.

Aitzitik, **okerren ordaindutako lanek** (edo ordaindu gabekoek) eta **aitorpen sozial gutxien** dutenek gehienbat emakumeek egiten dituzte, ez dute hainbeste kutsatzen, eta **ekarpen handiagoa egiten diote bizitzaren jasangarritasunari**. Esaterako, etxe bat garbi edukitzea eta familia bat egunero elikatzea. 2020ko pandemian, ageri-agerikoa izan zen: funtsezko lan batzuk ezin dira egin gabe utzi, bizitza posible izango bada. Sektore jakin batzuetako lanak —hala nola osasuna, zahar-etxeetako langileak, adinekoen zaintzaileak, supermerkatuetako kutxazainak...— ezin izan ziren egin gabe utzi, eta lanean jarraitu behar izan zuten, egiten duten lana beharrezkoa baita bizitza posible izan dadin.



Gaur egun, lanak merkatuko eskariaren arabera egituratuta daude, ez pertsonen beharren arabera. Desazkondeak, berriz, hauxe proposatzen du: premien arabera antolatzea eta behar horiek ahalik eta modurik jasangarrienean asetzea.

Eta nik zer egingo dut? Nondik hasi desazkundearen bidetik hobeto bizitzeko

Gure bizitza-eredua desberdintasunean eta harrapakaritzan oinarrituta dago. Hori utzi, eta mundu guztiarentzat bidezkoa den eta Natura zaintzen duen eredu batera jotzeko, denok **jardun ahal gara gure eguneroko bizitzan. Baina hori bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da kolektiboan aritzea** eta instituzio publikoei eta enpresei **aldaketak egiteko eskatzea**.

Gainera, gure ustez, **4 ardatz nagusitan** jardun beharko litzateke: elikadura eta nekazaritza, trantsizio energetikoa, zaintzak eta ekonomiaren birlokalizazioa. Ardatz guztiak oso lotuta daude beren artean:



Trantsizio energetikoa

ALDARRIKATU

- **Murriztu esportazioak eta inportazioak**, salgaien garraioa murrizteko
- Sortu **energia berriztagarriak** ezartzeko politika energetikoak; banatutako sorkuntza lehenesten dute, sare txikietan, autokontsumoa sustatuz
- **Onartu eta bermatu energia oinarrizko ondasun eta eskubide gisa**, pertsona guztiek behar adina energia izan dezaten bizitza duina izateko
- Bultzatu **eraginkortasuna eta energiaren aurrezpena** sektore guztietan
- Bestelako **opor- eta aisialdi-eredu** bat sustatu, distantzia handietan, resort eta gune turistikoetan oinarritzen ez dena

JARDUN

- Mugitzeko, **erabili bizikleta eta garraio publikoa eta oinez ibili**. Autoa erabili behar baduzu, partekatu beste pertsona batzuekin
- **Kontratatu** etxeko energia **bertako energia garbien kooperatibetan**, eta ez eskubideak urratzen dituzten eta ingurumen-inpaktu larrien erantzule diren enpresa multinazionalen
- Egin **eraginkortasun energetikoaren eta etxeko aurrezpenaren** alde
- Parte hartu zure herrian edo auzoan dauden **komunitate energetikoetan**

Elikadura eta nekazaritza

ALDARRIKATU

- **Lurra eta ura ondasun komuntzat hartu** eta herritar guztiei aukera bermatu ondasun horiek eskuratzeko
- Politikak sortu **landa-aldeko bizitza duintzeko eta biziberritzeko** eta hustutako eremuak birpopulatzeko
- **Lurrak birbanatu**, landu nahi dituenak eskura izan ditzan

JARDUN

- **Zuzeneko kontsumo-taldeetan** parte hartu nekazariekin
- **Sasoiko produktuak** kontsumitu bertako eta baserritarren merkatuetan
- Aukeratu **bertako produktu ekologikoen** dendak
- **Egin uko janari lasterreko kateei**, hala nola McDonalds, Burguer King eta antzekoei. Bultzatzen duten elikadura eredu oso kutsagarria eta bidegabea da eta ez da batere osasungarria

Zaintzak ekonomia feministaren ikuspegitik

ALDARRIKATU

- **Espazio publikoak** eskaini, bizitzari eusteko beharrak kolektiboki autokudeatu ahal izateko, hala nola jantoki komunitarioak, hiri-baratzeak, garbitegiak, trukea, aisialdiko guneak, etab.
- Garatu **etxebizitza komunitarioko** proiektuak (cohousing) edozein adinetako pertsonentzat
- **Ordutegi malguak eta arinak** lantokietan, murriztu enpleguari eskainitako orduak
- Parekatu **etxeko langileen eskubideak** Langileen Estatutuarekin

JARDUN

- Gizona bazara, hartu **zaintza-lanetan** dagokizun erantzukizunaren zatia, **berdintasunean**
- **Laguntza-sareetan** parte hartu, hala nola hazkuntza eta zaintza kudeatzeko gurasoen sareetan, lanak familia konbentzionaletik harago partekatzeko
- Parte hartu **truke-guneetan**, denbora-bankuetan, emakumeen etxeetan eta abarretan

Ekonomiaren birlokalizazioa

ALDARRIKATU

- **Merkataritza-gune handietarako espazioa mugatu**, pribatizazioak geldiarazi, eta egin enplegu publikoaren alde; berdintasuna eta diskriminaziorik eza lan-kontratazioetan
- **Egunean ordu gutxiago lan egin** ordaindutako lan-denbora pertsona gehiagoren artean banatzeko
- **Zerga-sistema** aldatu **aberastasuna birbanatzeko**, eta bultzatu ekonomia alternatiboa, solidariora eta hurbilekoa
- Bultzatu **ekonomia alternatibo, sozial eta solidarioko** enpresak eta sareak

JARDUN

- **Erosi gauza gutxiago**. Dauzkagunak gehiago zaindu, eta beste erabilera bat eman, gehiago behar ez ditugunean
- Utzi alde batera mota guztietako gehiegikeriak egiten dituen banka handia, eta erabili **kontzientzia etikoa duten finantza-entitateak eta enpresak**, ekonomia pertsonen zerbitzura jartzen dutenak
- Erosi **auzoko dendetan** eta **bigarren eskuko** produktuak
- Kontsumitu **gure ingurunean** fabrikatutako produktuak

Webgune eta proiektu interesgarri batzuk

Izan gaitzen errealistak... Ez du ematen mundu hau gobernatzen dutenak erabat aldatuko direnik eta denek batera desazkundean oinarritutako eredu bat bultzatuko dutenik...

Bitartean, "Jardun" atalean adierazitako gauza batzuk probatzen hasi ahal zara. Eta honen moduko proiektu eta alternatiben parte izan ahal zara. Besteak beste, bertako kooperatiba batekin kontrata dezakezu argia edo Internet:

REAS Euskadi, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea:
<https://reaseuskadi.eus/eu/ongi-etorri/>

Merkatu sozialean, ekonomia alternatiboko 120 entitatek baino gehiagok eskaintzen dituzten zerbitzuak eta produktuak aurkituko dituzu:
<https://merkatusoziala.eus/>

Olatukoop, ekonomia sozial eta solidarioko sarea, Euskal Herriko sozio-ekonomia eta lurraldea eraldatu nahi dituenak:
<https://olatukoop.eus/>

Goienar, energia berriztagarria sortzeko eta kontsumitzeko proiektu kooperatiboa, energia-subiranotasuna berreskuratu nahi duena:
<https://www.goienar.com/>

Saretuz, Donostiako kontsumo kontziente eta arduratsuen sarea, kale-izendegi batekin, hirian bidezko irizpideekin non erosi daitekeen jakiteko:
<https://saretuz.eus/es/>

Izarkom eta Bikonet, ekonomia soziala eta alternatiboa osatzen duten Euskal Herriko telekomunikazioko operadoreak:
<https://www.izarkom.eus/> eta <https://bikonet.net/>

Biolur, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatzeko elkarteak:
<https://www.biolur.eus/es/inicio>

Ekologistak Martxan, ekologismo sozialaren parte den elkarteak; ingurumen-arazoen jatorria ekoizteko eta kontsumitzeko moduan dagoela ulertzen duena ekologismoa:
<https://ekologistakmartxan.org/es/>

Plataforma por un Nuevo Modelo Energético, sozialki bidezkoa eta ingurumenaren aldetik jasangarria den energia-eredu bateranzko trantsizioa defendatzen duen herri-ekimena:
<https://nuevomodeloenergetico.org/>

Fiare Banka Etikoa, banku kooperatiboa eta independentea:
<https://www.fiarebancaetica.coop/>

Eranskina: Hasierako galderen erantzuna

1. Auto elektrikoak irtenbide jasagarria da kutsaduraren arazoa konpontzeko

Erantzun zuzena: Gezurra

Azalpena: errekontzako autoekin konparatuta, auto elektrikoak aukeratzea lagungarria da gure hirietako airea garbiago egon dadin... baina...

Egin diren kalkuluen arabera, Erresuma Batuan, adibidez, dozenaka zentral nuklear gehiago eraiki beharko liriateke uharteko auto elektriko guztiak elikatzen... **Espaloi gehienak altxatu beharko liriateke elektrifikatu ahal izateko** eta kale guztietan kargatzeko puntuak jarri; **lineak gainkargatu** egingo liriateke; gainera, ez dago materialik (litiorik) tamaina horretako hainbeste bateria egiteko, eta material hori erauzteak asko kutsatzen du; bestetik, gasolindegia guztiak "ibilgailu elektrikoetarako kargagune" bihurtu beharko liriateke... Auto elektrikoak gutxi batzuentzat da.

2. Zenbat aldiz biderkatu beharko litzateke gaur egun munduan dagoen litioaren ekoizpena (baterietarako bakarrik erabilia) trantsizio gogorra egiteko energia berriztagarrietara?

Erantzun zuzena: c) x 120

Petrolioaz edo gasaz gain, energia berriztagarriek ere mugak dituzte; eta beharrezko azpiegiturak eta teknologia ekoizteko, materialak behar dira...

Nondik aterako dugu, adibidez, hainbeste litio? **Cáceresen** meategi handi bat ireki nahi dute... Baina, jakina, bizilagunek ez dute nahi mendia zulatzea, hiri ondoan baitago... **Hemen ez dugu meategirik nahi, ezta beste leku batzuetan ere.** Ekologiagatik eta justizia sozialagatik. Har dezagun gure herri edo hiriaren ondoan dagoen mendi edo parke naturala, astebururo joaten gara bertara gozatzen... Demagun halako batean enpresa bat azaldu, eta proiektu bat aurkezten duela osorik zulatu eta litioa ateratzeko... Zer egingo genuke? Munduko leku askotan gertatzen ari da hori. Eta askotan jazarri, kriminalizatu edo hil egiten dute salaketa jarri edo protesta egiten duena.



3. Zenbat enpresak egiten dute CO2 isuriaren % 40 (karbono dioxidoa, berotze globalaren eragilea) Espainian?

Erantzun zuzena: b) 50

Gutxi direla ematen du, ezta?

Garrantzitsua da hori azpimarratzea, batez ere egungo krisi klimatikoaren garaian... **Denok dugu erantzukizuna**, jakina, eta denok jardun behar dugu (enpresa horiei guk ere kontsumitzen baitiegu), **baina ez neurri berean**... Erantzukizunak eskatu behar ditugu, eta gehien kutsatzen duenari presioa egin (fortuna handiei eta enpresei). Planetako biztanleen % 1ek pobreena den % 50ek baino CO2 gehiago isurtzen du.

2024ko datuen arabera, hauek dira Espainian **gehien kutsatzen duten** enpresak, ordena honetan: **Repsol, Endesa, EDP, ArcelorMittal, Cepsa, Naturgy, Iberia eta Iberdrola**.

4. Pertsona ospetsu hauetatik, nor babestu du azken aldian desazkundearen teoria?

Erantzuna: b) Leticia erregina

Bai, monarkiako pertsona bat izan da, hemen duzu...

<https://www.youtube.com/watch?v=TdjkhOssP4I>

Galdera hau bitxikeria hutsa da... Baina aski esanguratsua da enpresariak hainbeste kritika egitea Leticia desazkundera aipatzeagatik...



5. Hainbat azterlanen arabera, gaur egungo energia eta materialen kontsumoaren zein portzentajerekin izan genezake antzeko bizi-maila (baina bestelako bizimodua)?

Erantzuna: a) % 10

Antonio Turielek hemen kontatu du:

<https://youtu.be/-Ab2iONiJtc?si=r3LGgPnU6N1nRI3I&t=3441>

Ikusten duzuen bezala, desazkundera **ez da lau hippyren**, aktibisten edo ekologisten **aldarrikapen bat**. Zientzia eta ekonomiako sektore zabalek dagoeneko besarkatzen duten proposamena da.

Hain zuzen ere, kalkuluen arabera, **gaur egungo kontsumoaren % 10arekin oso duin bizi gitezke**... Datu horretan, kontuan hartu behar da **gaur egun materialak izugarri xahutzen direla**. Ia ezer ez da konpontzen (telebistako txip bat hondatu, eta osorik aldatzen dugu...). Pentsa ezazue zenbat energia eta material aurreztu litekeen dena modu eraginkorrean konpondu eta ekoitziko balitz; eta eraikin bakoitzeko iraupen luzeko bi garbigailu egongo balira, bizilagunen atari bakoitzean...

